

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

## 843

*7/2023 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Auditore Atxikituaren lanpostuak betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behinbehineko zerrenda onartzen duena.*

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariaren abenduaren 1eko 69/2022 Ebazpenaren bitartez (abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248 zk.), lehiaketa bidez lanpostuak egonkortzeko salbuespenezko prozesua deitu zen, karrerako funtzionario moduan Herri-Kontuen Euskal Epaitegian auditore atxikituaren plazak betetzeko. Prozesu hori 2022ko ezohiko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, zeina salbuespenezkoa baita.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautzen da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da, Lehendakariaren ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko da. Interesdunei 10 eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Aurreikusitako epean zuzenketa-eskerik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Hori guztiori aintzat hartuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Herri-Kontuen Euskal Epaitegian auditore atxikitua lanpostua karre-rako funtzionario gisa betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Ebazpen honen eranskinean jasoa dagoen moduan.

Bigarrena.– Argitaratzea onartutako eta bazter utzitako izangaien zerrenda Euskal Herriko Agin-taritzaren Aldizkarian eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web orrian.

Hirugarrena.– Interesdunei 10 eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Laugarrena.– Zuzenketa-eskerik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihur-tuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

HKEEko lehendakaria,  
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,  
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

## ERANSKINA

LANPOSTUA: AUDITORE ATXIKITUA

ONARTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena
***8695**	Aguayo Benito, Maria Montserrat
***5119**	Aguirrebengoa Barreña, Itsaso
***4123**	Alonso Moso, Ana
***1810**	Briongos Camara, Margarita
***3276**	Chasco Marquinez, Iratxe
***9045**	Cuende Mateo, Laura
***5484**	Escalona Ochoa, Borja
***8290**	Espiga Maraña, Maria del Valle
***4339**	Garro Lejarraga, Maddi
***4126**	Gonzalez Liceaga, Janire
***8815**	Guerrero Gomez, Mikel
***8869**	Lasa Ribas, Maria Aranzazu
***1617**	Luja Ribera, Maria Ines
***1823**	Mate Martinez, Aitor
***7055**	Ortueta Gonzalez, Jone
***8023**	Ortuzar Iragorri, Javier
***6201**	Pinacho Carmona, Maite
***8217**	Pizarro Martinez, Maria Elena
***7281**	Quintana Llaguno, Angel Maria
***1768**	Ruiz Hernandez, Maria Inmaculada
***7579**	Saenz Barturen, Laura
***9232**	Sainz Garcia, Vanessa
***5704**	Sistiaga Perez, Carla
***0090**	Zubizarreta Elicegui, Miguel

BAZTER UTZITAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Inor ere ez